



**2017KO APIRILAREN 21EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeita batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko apirilaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 29 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMAHIRU MILA EHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (33.181,41 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GOIERRI TELEBISTA ETA GOIERRIKO HITZARI DIRU LAGUNTZAK.-

Alkateak luzatutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakitzen du Goierrri Telebistari eta Goierrriko Hitzari, bakoitzari, biztanleko 2 €ren pareko diru laguntza onartzea.

Azken datu ofizialen arabera Lazkaon dituen biztanle kopurua 5.539 da eta beraz bakoitzari onartutako diru laguntza hamaika mila eta hirurogeita hemezortzi euro (11.078 €) da. Orain zenbateko honen erdia orain ordainduko zaie, hau da, bost mila bostehun eta hogeita hemeretzi (5.539 €) euro.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamahiru gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

